## Elkarrizketa: JESUS MARI NARVAEZ,
### NAUTILUS-EKO FOSIL BILDUMAREN JABEA



Liburuaren aurkezpeneko une bat, Nautilus Interpretazio Zentroan

Europako Geoparkeen Asteko egitarau zabalaren barruan, Jose Angel Torres Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak idatzitako "Mutrikuko Flysch Beltza: 110 milloi urteko historia" liburuaren aurkezpena egin zen Nautilus Interpretazio Zentroan, Mutrikun. Bertan izan zen Jesus Mari Narvaez, Nautiluseko fosil bildumaren jabea eta urteetan zehar fosil ikusgarri hauek labarretatik erreskatatu dituen pertsona.

**- Zer-nolakoa izan zen liburuaren aurkezpen ekitaldia?**

Ederki egon zen, ni oso pozik geratu nintzen. Jendea bildu zen bertan eta galdera interesgarriak egin zituzten. Liburua bera ere oso ondo dago egina. Baliagarria izango da bihar edo etzi gazteen artean geologia edota paleontologiarako afizioa sortzeko, gehiago jakiteko gogoa sartzen zaizu eta. Ni neu autodidakta izan naiz. Gai hauek nekezak izaten dira hasieran baina jendea hasi da konturatzen hemen zer dugun eta zenbat eta gehiago ikusi interesa handituz doa, gazteen artean bereziki. Bihar-etzi geologo gehiago eta paleontologo gehiago egongo dira.

**- Nautilus zentroaren irekiera, liburu honen argitalpena... Urteetako lanaren ostean, errekonozimendu bat dela uste duzu?**

Bai, baliteke errekonozimendua izatea... Baina esango nuke errekonozimendu bat dela lantalde osoarentzako. Jende askoren arteko elkarlana da, bakoitzak bere esparruan dihardu. Nik eta nire emazteak lan asko egin dugu fosilak topatzen, afizioz, giro onarekin eta giro txarrarekin, baina gozatuz beti. Orain jubilatu naiz eta oraindik badaukat sasoia, beraz, jarraitzen dut lanean pieza onak topatzen, niretzako satisfakzio handia da. Lehen emaztearekin joaten nintzen, orain bakarrik ibiltzen naiz, Mutrikun eta beste toki askotan, beti lurrera begira.

**- Geoparkea geokontserbazioan eta dibulgazioan lagundu dezakeen tresna egoki gisa ikusten duzu?**

Bai, dudarik gabe. Geoparkea interesgarria da denontzat. Bai bertakoentzat bai kanpokoentzat aberastasun handia da. Orain ditugun hitzaldiak, bisita gidatuak... Geoparkea proiektu ederra da.

## PRESENTACIÓN OFICIAL DE LA NUEVA TEMPORADA DE VISITAS GUIADAS DEL GEOPARQUE



La DFG apuesta firmemente por el Geoparque de la Costa Vasca y su oferta de turismo de naturaleza.

Extensa y muy variada es la temporada de visitas guiadas que el Geoparque ha elaborado para este año 2013. La presentación oficial tuvo lugar en fechas previas a la Semana Santa en la Diputación Foral de Gipuzkoa y en ella estuvieron presentes el Diputado de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo Jon Peli Uriguen; el Director de Turismo de la DFG, Roke Akizu; el presidente de la Asociación Geogarapen y Alcalde de Zumaia, Iñaki Agirrezabalaga; y la gerente del Geoparque, Leire Barriuso.

El programa presenta algunas novedades, como la nueva visita denominada "Los puertos del flysch", donde se realiza una travesía en barco entre Zumaia y Mutriku para conocer tanto el patrimonio natural como el patrimonio histórico y marítimo de Zumaia, Deba y Mutriku, estrechamente relacionados con el mar.

Toda la información y reservas online en la página web: **www.geoparkea.com**

Facebook.com/Geoparkea @geoparkea

Euskal Kostaldeko Geoparkearen Kudeaketarako Elkartea GEOGARAPEN Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca · European Geoparks · Global Geoparks Network · LEADER · Turismo Gipuzkoa · EUSKADI

Kaioa


# Geoparkea

Geoparkea Costa Vasca - Euskal Kostaldea

Euskal Kostaldeko Geoparkearen buletina · Boletín del Geoparque de la Costa vasca

2. zenbakia - Número 2
Ekaina/Junio 2013


## EUROPAKO GEOPARKEEN ASTEA AMAITU DA, PARTE HARTZE HANDIAREKIN

Bukatu berri dira Europako Geoparkeen Astearen baitan antolatutako jarduerak. Maiatzaren 18tik ekainaren 9ra bitartean burutu dugu aurten Astearen III. edizioa, Geoparkea kudeatzeaz arduratzen den Geogarapen Elkarteak antolatuta.

Helburua bertako ondare natural, geologiko eta kultural baliotsua herritarrei, eta bereziki Deba, Mutriku eta Zumaiako biztanleei, gerturatzea izan da. Horretarako, hamaika jarduera antolatu dira, besteak beste, hitzaldiak, umeentzako tailerrak, doako bisita gidatuak eta liburu baten aurkezpena.

**Oro har ekitaldi guztiek oso harrera ona izan dute, urtetik urtera jendearen interesa gorantz doa eta honek programaren kalitatean ere bere isla du.**



Zumaian egin zen aurkezpenean Jon Maia bertsolariak parte hartu zuen

Aurten, berrikuntzetako bat "Nortzuk izan ginen eta nortzuk gara" izeneko ekimena izan da. Honen bidez, Geoparkeko hiru herrietako euskarazko ahozko ondarea ezagutarazteaz gainera, bertako euskaldun zaharrek oraintsu arte izan dituzten ohitura eta bizimodua erakutsi da. Deba, Mutriku eta Zumaiako biztanleen testigantzak jasotzen dituzten 3 bideoak Geoparkearen Youtubeko kanalean ikusgai daude: youtube.com/geoparkeatv.

## ENCUENTROS PARA PROMOVER LA COOPERACIÓN



Organizado por Geogarapen, la Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca, Hazi y la Escuela Fraisoro, en colaboración con Debemen y Urkome, los días 14 y 21 de marzo tuvieron lugar en el restaurante Salegi de Itziar-Deba sendos encuentros con el fin de impulsar la cooperación.

El objetivo del encuentro, en el que participaron alrededor de 40 empresas relacionadas con el turismo y el sector primario, fue el de promover la generación y el desarrollo de nuevas ideas y proyectos para su puesta en marcha en el Geoparque. Los asistentes trataron de identificar proyectos que puedan ser desarrollados de forma conjunta entre baserritarras, alojamientos, restaurantes y/o empresas de actividad para conseguir un beneficio mutuo.

**Leire Barriuso, gerente del Geoparque, señaló las oportunidades que el Geoparque ofrece como una herramienta útil de desarrollo y por ser una marca reconocida a nivel internacional.**

Enmarcado dentro de un programa de Hazi para promocionar las Denominaciones de Origen, los participantes en los encuentros tuvieron la ocasión de degustar productos tales como queso Idiazabal, vino de la Rioja Alavesa, Txakoli de las 3 Denominaciones de Origen y pinchos de carne Betizu de la mano del Restaurante Salegi.

# EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAK INTERESGUNE GEOLOGIKOEN INBENTARIOA BURUTU DU

**54 interesgune hauek gure geologiaren adierazle dira eta ondare geologikoaren kudeaketa zentzudun eta jasangarri bat egiteko abiapuntua.**



Algorri eta Itzurun inguruan 14 interesgune biltzen dira, zientifikoki ezagunenak eta ikertuenak.

Munduko Geoparke guztien bereizgarri nagusia da geologia interesgarri baten jabe izatea eta ondare honen inguruan kudeaketa jasangarri bat garatzea. Horretarako, ezin bestean, lehen pausoa Geoparkeko interesgune geologikoen inbentarioa egitea da.

Honela, Euskal Herriko Unibertsitateko aditu talde baten laguntzarekin, azken hilabeteetan 54 interesgune geologiko jasotzen dituen inbentario bat burutu berri du Geoparkeak. Interesgune hauek guztiek gure Geoparkearen geologiaren adierazle eta gure ondare geologikoaren ikurra dira; ikertu, kontserbatu eta jendartean zabaldu behar diren altxor geologiko txikiak. Hona hemen, irudietan, adibide batzuk.

Interesgune hauek guztiak deskribatzen dituzten fitxak Geoparkeko webgunean zintzilikatuko dira laster interesa duenarentzat eskuragarri egon daitezen.



Saturraran hondartzan 2 interesgune geologiko batzen dira, hondartza bera eta itsas azpiko kanal handi batean duela 100 milioi urte sortutako konglomeratuak.



Lastur eta Olatz bezalako poljeak bitxikeria bat dira. Norantz doaz bailara itxi hauetako urak?

# EL GEOPARQUE ABRE NUEVAS LINEAS DE INVESTIGACION PARA COMPRENDER LA EVOLUCION DEL PAISAJE CUATERNARIO

Las playas, los estuarios, los valles y las cuevas del Geoparque aportan mucha información sobre la evolución del paisaje, el clima y el nivel de mar en los últimos 20.000 años. El Geoparque de la Costa Vasca ha abierto una nueva línea de investigación con un equipo de expertos de la UPV-EHU para descifrar la evolución de nuestro Geoparque en los últimos miles de años, y complementar así el discurso interpretativo relacionado con la arqueología y la presencia humana en nuestro territorio.

# GEOLODIA 2013 EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAN



Geolodian parte hartu zuten lagunek Elorriagan atera zuten taldeko argazkia.

Pasa den maiatzaren 11an Gipuzkoa osotik eta beste lurraldeetatik etorritako 55 lagunek Deba eta Zumaia arteko itsaslabar ikusgarrietan barrena ibilaldia egiteko aukera izan zuten, Gipuzkoako Geolodia 2013 ekimenaren baitan.

Geolodia estatuko lurralde guztietan aldi berean burutzen den dibulgazio ekimena da, Lurraren zientziak ezagutzera emateko helburuarekin. Horretarako, herritarrei zuzendutako irteera geologiko gidatuak egiten dira han-hemen, dohainik. Aurten oro har 8.500 lagunek hartu dute parte ekimenean.

# CESTAS DE PRODUCTOS GEOGOURMET

Uno de los objetivos principales del Geoparque de la Costa Vasca es el desarrollo rural y la puesta en valor de los productos locales. Bajo la denominación GeoGourmet, el Geoparque comercializa productos agro-pesqueros conformados por una selección de especialidades locales producidas en nuestro territorio.



Hay 2 tipos de lotes: el primero incluye una porción de queso de oveja con D.O. Idiazabal (Goienetxe, Andutzene o Goikola), una botella de txakoli con D.O. Getariako Txakolina (Flysch o Sagarmiña Txakolina) y una conserva de bonito en aceite de oliva (Nardin o Calogero), a la venta a un precio de 20 euros.

El segundo lote, más económico de 13 euros, está conformado por una botella de sidra ecológica Txindurri Iturri y una porción de queso de oveja con D.O. Idiazabal. Ambos incluyen una Guía de Degustación de los productos.

**Los lotes de productos del Geoparque son un regalo perfecto. A la venta en las Oficinas de Turismo de Deba, Mutriku y Zumaia.**

## DEBABARRENA ETA UROLA KOSTAKO SUKALDARI ETA EKOIZLEEN ARTEKO TOPAKETA



Hiru sukaldariak bi eskualdeetako ekoizleekin batera

Bertako nekazal produktuak balioan ipini eta gure jatetxeetan tokiko produktuen erabilera bultzatzeko helburuarekin, Debabarrena eta Urola Kostako 40 bat sukaldari eta ekoizle elkartu ziren ekainaren 10ean Debako Ozio-Bide elkartean. Ekimena Debemen eta Urkome landa garapenerako elkarteek antolatu zuten, "GUSTUM" proiektuaren barruan, Geoparkea, Debegesa eta Urola Kostako Mankomunitatearen laguntzarekin. "Gustum" lurralde arteko egitasmo bat da eta Euskadi, Lleida eta Balearretako 10 tokiko ekintza taldek sustatzen dute.

**Landa garapena bultzatzea du helburu nagusi, tokian tokiko nekazaritzako kalitatezko elikagaiak sustatuz, sukaldaritza, turismoa eta merkataritzarekin sinergiak bilatuz.**

Xabier Osa (URGAIN Jatetxea, Deba), Julen Beaskoa (KANALA Jatetxea, Itziar) eta Asier Alcelay (KETARRI Jatetxea, Getaria) sukaldariek plater bana prestatu zuten tokian tokiko produktuak erabiliz:

- "AROA sentsazio bouqueta MAISOR Kantauriko berdelarekin"
- "KORTABERRI baserriko ilar krema eta tipulatxoak plantxan"
- "Sukalkia, AITTOLA ZAHAR baserriko Euskal Labeleko haragia eta barazkiekin"

Antolatzaile zein sukaldariek bertako produktuen aldeko aldarrikapena egin zuten, baserritarren lana goraipatuz, eta bertaratutakoak kalitatezko produktu hauek kontsumitzera animatu zituzten. Zalantza gabe, batzuen eta besteen arteko harremanak sortzeko eta lurraldearekin lotutako nekazaritzako produktuak promozionatzeko balio izan zuen ekimenak.

# BASQUE COAST GEOPARK NETWORKING

**Un ejemplo exitoso del trabajo de colaboración entre los Geoparques Europeos**

El Geoparque de la Costa Vasca vuelve con premio de la mayor feria de turismo del mundo. La colaboración entre el Geoparque de la Costa Vasca, Donostia Turismo y la Diputación Foral de Gipuzkoa ha hecho posible que el Geoparque haya estado presente en la Feria Internacional de Turismo de Berlín (ITB).




Premio a la Red Europea de Geoparques en Berlin

El Geoparque compartió espacio expositivo con otros seis Geoparques europeos -Portugal, Finlandia, República Checa y tres Geoparques de Alemania- ubicados en un stand bajo la marca de la Red Global de Geoparques , logrando el tercer premio al mejor stand, en la categoría de ONGs y organizaciones sin ánimo de lucro.

El turista extranjero es estratégico para el Geoparque de la Costa Vasca y experiencias como ésta contribuyen a la captación de este tipo de turista de calidad.